

KANALAK

Gure zerbitzuaren balorezko proposamena bezeroei iristeko, gure enpresaren arteko komunikazioa nolakoa den deskribatuko dugu, baita nola iritsiko den gure zerbitzua finkatutako merkatu segmentaziora.

Kanalen arloan, gure enpresaren inguruan hiru alderdi ezberdin sailkatuko ditugu: Komunikazio kanalak, banaketa kanalak eta salmenta kanalak.

Enpresaren kanalak bezeroekin lotura eta harreman handia izango du, bezeroak baitira gure ideia abian jarriko dituztenak. Horretarako, beste enpresetan bezala, bost fase ezberdinetan banatuta egongo da: pertzepzioa, ebaluaketa, erosketa, entrega eta saltzearen ondorengoa.



Gure enpresan oinarritzen den kanal mota zeharkakoa izango da. Guk ekoizten duguna zerbitzu bat da, eta zerbitzu hau ezin du edozein biztanlek erosi. Guk adostutakoa udalari saltzea da, eta geroago haien hirian zehar erabiltzea zerbitzu hau. Gainera, ez dugu interneterik erabiliko, ez dugu interneteko orrialderen batean gure zerbitzua salduko. Handizkariak izango gara eta udala izango da gure zerbitzua aurrera eramango duen beste talde bat, azkenean guk ekoiztutako ideia gizarte zerbitzu bat delako.